

# Brownie

Kluba

Promesa Aparta



desclée

Ezagu tu

# Brownie

Neskak



Katie

Katie,  
Graceren bikia,  
oso kirolaria da,  
eta lehiatzea eta  
irabaztea gustatzen  
zaio. Brownie insignia  
guztiak lortu nahi ditu,  
eta bere Tribua  
Azeriak dira!

Jamila

Jamilak  
neba gehiegi  
ditu, eta horregatik  
atsegin du Brownie  
kluba, MUTILAK  
EZ DAUDELAKO  
ONARTUTA!  
Jamila Azkonar  
bat da!



# Ellie

Trebea  
da benetan  
arteetan eta  
eskulanetan. Ostadar  
bat izan zen, eta lagun  
berriak egitea atsegin du.  
Ellie Kirikino bat da!



Animalien zale  
porrokatua da. Charliek  
txerri ginear bat du, Koska  
izenekoa. Brownie galdera-  
-lehiaketak atsegin ditu,  
baita Tribu Topaketak  
ere. Bere Tribua  
Katagorriak dira!

# Charlie

# Grace

Grace  
Katieren bikia  
da eta balletaren  
zale amorratua da.  
Graceri Brownie  
txangoetara joatea  
gustatzen zaio, eta  
Untxi bat da!







# 1. Atala

Astearte eguzkitsu bateko bazkalordua zen, eta Badenbridge Ikastetxeko umeak jolastokian zeuden. Txoko batean, zuhaitz baten azpiko bankuan, bost lagun min eserita zeuden.

—Gaur gaua iristeko irrikan nago! —esan zuen Katiek— Brownie klubera joango gara azkenean!

—Azkenean! —esan zuen hasperen eginez Katieren bikiak, Gracek, hatzekin ilea kiribiltzen zuela—. Ematen du mendeak daramatzagula une honen zain.

—Mendeak daramatzagu zain —azpimarratu zuen Jamilak, bere ile beltz eta luzea belarrien atzean jartzen zuela—. Duela hilabete pila bat eman genuen izena kide bihurtzeko itxaronzerrendan.

—Zorionez, amak hona etorri baino lehen entzun zuen Brownie klubaren kontua! —esan zuen Elliek. Ellie Badenbridgera iritsi berri zen, baina ez zuen denbora luzerik behar izan Katieren, Graceren, Jamilaren eta Charlieren lagun bihurtzeko.

—Bai, orain gurekin batera sartuko zara! —esan zion Charliek irribarrez.

—Amak dio gauza zirrargarri mordoa egingo dugula Brownien —esan zuen Katiek—. Jokoak, abentura-egunak eta era guztietako txangoak.

—Eta eskulanak eta errezetak —erantsi zuen Elliek.

—Eta EZ DAGO MUTILIK! —esan zuen Jamilak irribarrez—. Bikaina izango da!

Besteek barre egin zuten. Jamilak bost neba zaharrago zituen, eta kokoteraino zegoen neska bakarra izateaz.





—Zuzen zaude —esan zuen Charlie. Gaztaina—koloreko ilea mototsetan lotuta zuen—. Book dio Brownie bikaina dela —Boo Charlieren ahizpa nagusia zen, eta bi urte zeramatzan Brownie klubean—. Hainbat txangotara joan da, antzezetara eta kontzertuetara, adibidez, baita zoora ere.

—Agian ikuskizunen batean parte hartuko dugu —esan zuen Gracek. Asko gustatzen zitzaion dantza egitea, eta ballet eta jazz eskoletara joaten zen astero—. Eta, beharbada, musika jotzen utziko dizute, Jamila!

Gracek dantza atsegin zuen beste maite zuen Jamilak musika. Larunbatero teklatura jotzen zuen musika-talde batean.

—Berriz diot —esan zuen Katiek barrez—, gaur gaua iristeko irrikan nago!

—Brownieak izan nahi dugulako! —oihukatu zuten bost neskek aldi berean, algara artean.

—Nola jantzi beharko genuke? —galdetu zuen Gracek—. Eskolako uniformearekin joan beharko genukeela uste duzue?

